

Udaberriko oporrak

Gogorarazten da udaberriko oporren bueltan eskolak **apirilaren 13an** hasiko direla.



Artezkaritza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteazkenean, apirilak 15, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Jangela: apirileko menua

Hona hemen apirilean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#) eta baita [menu berezia](#) behar duten bazkaldarrena ere.



Familiak eta euskara

Ikastolen Elkartearen eskutik "Familiak eragile hizkuntzen erabileran" sortako lehen hitzaldia duzue segidakoa.

Paula Casaresek **familiak euskara sendotzeko arrazoiak eta bideak** aipatu zituen hitzaldi labur honetan.

Udarregiko webguneko helbide honetan aurki dezakezue:

<https://udarregi.eus/eu/albisteak/2026-03-27-familiak-eragile>

Baliagarri izan dakizuela!



HAUR HEZKUNTZA

Ez dago berririk.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1 eta LH2 irteera Arotz-Eneara

Datorren ekainaren 10-11n Etxarri-Larraun herrian dagoen Arotz-Enea baserrira joango gara gaua pasatzera LH 1 eta 2kook. Bertako egonaldiaren kostua 65€koa izango da. Autobusaren kostua joango direla baieztatzen duten ikasleen artean kalkulatu da, irteera honetara joatea hautazkoa baita.

Hori dela eta, **apirilaren 30a baino lehen** zuen seme-alaba **irteerara joango den ala ez** tutoreari adierazteko eskatu nahi dizuegu.

Datu hauen arabera, kobrantzaren nondik norakoak aurrerago jakinaraziko dizkizuegu. Nahi izanez gero, oporraldia aprobetxa dezakezue familiako edo lagunen baten etxean gaua pasatzearen esperientzia frogatzen joateko.



LH 6ko irteera eta kobrantzak

LH 6ko ikasleak, ekainaren 8tik 10era Zuhatzara doaz eta irteera guztiaren kobrantza (egonaldia eta autobusa) datozen 3 hilabeteetan egingo dugu. Apirilaren 13an, irteeraren lehen zatiaren kobrantza egingo da (25€). Maiatzean, bigarrena (25€) eta ekainean, geratzen den zatia.



Eskertza

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Korrika ekimenaren harira antolatutako azoka solidarioan parte hartu duzuen guztioi.



LH6ko ikasleok kilometro bat erosi eta herrian korrika egiteko aukera izan dugu, eta hori posible izan da zuen laguntzari esker. Azokan, Korrikako petoak, belarritakoak, bizkotxoak... saldu genituen, eta egunero guraso asko gerturatu zineten eroatera eta laguntzera. Benetan eskertzekoa izan da zuen inplikazioa.

Era berean, Ni Naiz (by Nahia Naiara) eta herriko hainbat saltokiren ekarpenarekin lortutako irabaziak proiektuari bideratu dira.

Eskerrik asko, bihotzez, ekimen hau posible egin duzuen guztioi. Zuen babesarekin, euskararen alde korrika egiten jarraitzen dugu!

Irakurketa solasaldia

Maiatzaren 5ean 18:00etan IRAKURKETA-SOLASALDIA Sutegi Liburutegian, **LH 4tik gorako haur eta gaztetxoentzat**. Mintzagai izango dugun liburua, Mariasun Landaren TXAN FANTASMA. **Liburuak jada eskuragarri** ditugu Liburutegian.



BIGARREN HEZKUNTZA

Ez dago berririk.